

MENDIZABAL
JATETXEA • SAGARDOTEGIA
Astigarraga (Gipuzkoa)



URTE OSOAN ZABALIK

www.mendizabalsagardotegia.com

UXARTE
SAGARDOAGINTZA

Baserriko oilaskoa eta etxeko okela
Sagardoa urte osoan txotx eran

Montorra, 6 • 48340 ZORNOTZA • Tel.: 94-630 88 15 • www.uxarte.com

SAGARDOTEGIA ALBERRO



ALBERRO TOLARE-SAGARDOTEGIA

Santa Barbara auzoa, 61 • 20120 HERNANI • Tel.: 943-55 00 19

OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA



MIKEL KROZAMENA
BIDEA 16
20115 ASTIGARRAGA

943-55 29 38
722380416

igande eta astelehenetan izan ezik

Zure erretegia
Gasteizko bihotzean

MATXETE
ERRETEGIA



Matxete Plaza 4-5 (01301) Gasteiz • Tel.: 945 13 18 21 • www.matxete.com

AITZINDARIEN FUNTSEZKO ZEREGINA

Euskal Sagarraren Ikerle Taldea aitzindaria izan da sagarra ikertzeko eta sagardoa sustatzeko eginkizunean.

Euskal Sagarraren Ikerle Taldean (ESI), sagarra ikertzeko eta sagardoa sustatzeko bultzatzen zuten hainbat pertsona aritzen ziren. Sagardoa ekoizten duten baserrien ekonomia indartzeko bide gisa hartzen zuten sagardoa sustatzea.

Euskal Sagarraren Ikerle Taldea sortu zenean, Josetxo Uribe zen lehendakaria. 1978an argitaratu zuen *Sagardoa* izenburuko liburua, sagardoa egiteko prozesuaz mintzo zen, eta sagardoa egiteko egokiak ziren Gipuzkoako sagarren katalogo bat eskaintzen zuen.

ESiko gainerako kideak ziren: Angel Segurola, Angel Zendoia, Kerman Rekondo, Enrique Samaniego, Miguel Zapiain eta Guillermo Otegi.

«Taldea pixka bat kasualitatez sortu zen; hainbat lagun sagarraren eta sagardoaren inguruan elkartzeko ginen; eta aberastasun historiko bat bazegoela eta ekono-



SAGASTIA, Astigarragako sagasti bat. Sagarrondoetan lortutako sagarrak sagardoa egiten dute. IMANOL OTEGI / ARCAZO PRESS

mikoa ere izan zitekeela jabetu ginen, eta galtzen ari zela», Miguel Zapiainen hitzetan. «Sektorea bertan behera geratzen ari zela ikusten genuen, Gipuzkoako nekazaritza. Urte batzuk lehenago egundainoko presentzia eta maila zeukan Europan, baina galtzen ari zela ikusten genuen».

Beharrezko hausnarketak egin ondoren, Euskal Sagarraren Ikerle Taldea sortu eta lanean hasi ziren. «Gipuzkoako Foru Aldundira joan ginen, eta Nekazaritza Departamenduko arduradunak aurkeztu genien egitasmoa. Gutako bakoitzak gure zeregina geneukan, eta ez ginen ez baserritarrek

Arizia
Sagardotegia

Zarauzko Sagardoa

Tel: 943 100 489 - www.arizia.net
Frantsesbidea, Aitzte auzoa. Zarautz.



LA CASONA

Erretegia - Sagardotegia

Pueblo Viejo - BARAÑAIN
www.lacasonarestaurante.net

Erreserbak:
948-18 67 13

URTE OSOAN ZABALIK

SARASOLA SAGARDOTEGIA



Astigarraga (Gipuzkoa)

www.sarasolasagardotegia.com

MINA

SAGARDOTEGIA
Inaxio Ollokiegi Zubillaga

Txorriokieta p. • Tel.: 943-55 52 20
20115 ASTIGARRAGA

ezta sagardogileak ere, baina abiapuntu bat jartzea lortu genuen, eta diputazioak kontzientzia hartu zuen, eta Iñaki Larrañaga teknikaria kontratatu zuen».

Iñaki Larrañagak gidatzen zuen taldea bertako sagar motak biltzen hasi zen, eta sagarrondoan haztegi bat zabaldu zuen Hondarribian. «Une bat iritsi zen non ESI taldean ikusi genuen aurrera jarraitzeko erabat profesionalizatu behar genuela, baina gutako bakoitzak gure lanbidea zuen, eta ESI taldearen jarduna hor geratu zen; gure lana hor bukatzen zela jabetu ginen», azaldu du Miguel Zapiainek.

ESI taldeko kideak tarteka biltzen dira oraindik, «lagun talde gisa bakarrik». Izan ere, haiek abiatu zuten lana Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak egiten dute orain.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskal Sagarraren Ikerle Taldea (ESI) omendu zuen, eta Pomologiaren Sustapen Programaren sorreraren 25. urteurrena ospatu zuen 2008an.

Iñaki Larrañaga Gipuzkoako

«Hainbat lagun sagarraren eta sagardoaren inguruan elkartzen ginen, eta taldea kasualitatez sortu zen»

«Aberastasun historiko bat bazegoela eta ekonomikoa ere izan zitekeela jabetu ginen, eta galtzen ari zela»

MIGUEL ZAPIAIN
Euskal Sagarraren Ikerle Taldeko kidea

Foru Aldundiko teknikariak ESI taldearen sorrerako garaia gogora ekarri zuen aipatu ekitaldian: «Baserriarentzat emankorra izango zen zer bait biltzen salatzten ari ginen, ustiategiak bertan behera uzten ari zirela eta pinuak landatzen ari zirela ikusten ari ginelako. Sagarrondoak eta sagardoa irtenbide bat izan zitekeela uste genuen».

Baserriz baserri ibili ziren sagar mota onenak zeintzuk ziren baserriarrei galdetuz. «Hasieran, 36 sagar mota katalogatu genuen». Asturiasera (Espainia) eta Herefordeko konderrira (Ingalaterra) ere joan ziren, toki horietako sagarrondoei eta sagarrei erreparatzera, eta ekoizpen moduak aztertzeraz.

Ikerketak eta haztegiak
ESI taldeak lana hasi ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak sagardoa egiteko sagarraren eta sagarrondoak landatzeko moduen inguruko ikerketak abiarazi zituen. Urteotan, Gipuzkoako Aldundiak hainbat haztegi zabaldu ditu, baserriarrek sagarrondoak landa ditzaten.

ESI taldearen aurretik, Vicente Laffitte aitzindariak egin zuen lana ere aipatu behar da; 1918an, Eusko Ikaskuntzak egin zuen lehenengo biltzarrean, Oñatin (Gipuzkoa), txosten bat aurkeztu baitzuen sagarrondoak landatzeko modu egokiari buruz, eta sagardoa egiteko Gipuzkoako sagar motei buruz.



SAGARRAK. Sagarrak aukeratzen eta garbitzen, dolarera sartu aurretik, Gurutzeta sagardotegian, Astigarragan. JON URBE / ARGAZKOPRESS

TXIMISTA
sagardotegia
tximistasagardotegia.com

Sagardotegiko menua
Eguneko menua
Aukerako menua
943-55 11 28
Gudarien etorbidea, 2. ORDIZIA

Larrarte
Sagardotegia

Muñagorri Enea - 20115 Astigarraga (Gipuzkoa)
Tel. 943 55 56 47 - Mòbil 679 123 892

Sagardo botila urte osoan salgai

LARRE-GAIN
Tolare - Sagardotegia

943-55 58 46 - 616-28 78 67

Ixabel Santa Cruz Zerain
LARRE-GAIN BASERRIA • ERENOTZU • HERNANI



Euskal Sagardoa
Sidra Natural
del Pais Vasco

SAGARDOA

EUSKO
Labela
duen BAKARRA.

%100
BERTAKO
sagarrarekin
BAKARRIK
egina

hazi

Landa eta ibai ingurumenaren
gintzaperako Eusko
Jaurtzeraren Korporazioa

Korporación del Gobierno
Vasco para el desarrollo
del medio rural y marino

2012
Eusko Sagardotegien

UXARTE
SABAR
REZOLA
LIZZAGA
AGINAGA

BEREZIANTUA
BALEGO
ABUZZA
ANTARRI
OLA

LANERO
POTRITEGI
EULA
ETXEBARRIA
MAIGARRAZAGA

KANDU
ITXAMBU
ANAYA
AXPE
DARRAGARRA

URRUTIA
GALONDE
LARRATE
ITURBETA
TXINDERRI

HERNAN
DIA
NABOTA

